

Erf.: Nardiz tar Jon 18ko errepartzelazinoa
Espediente zk.: 15/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Nardiz tar Jon 18ko orubearen errepartzelazino proiektua behin betiko onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2015eko otsailaren 23an, Tokiko Gobernu batzarrak, Nardiz tar Jon 18ko orubearen errepartzelazino proiektua hasikeraz onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Hasierako onarpenaren erabagia jendaurrean jarri da eta ez da inolako alegazinerik aurkeztu.

b) Oinarri juridikoak

Bakarra: Behin jendaurreko epea amaituta, xehetasun azterlana behin betiko onartu behar da eta, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 22.2.c) artikularen arabera, errepartzelazino proiektuen behin betiko onarpena Osoko Bilkureari jagoko.

Era berean, Lege bereko 47.1 eta 47.2.1) artikulak jarraiki, errepartzelazino proiektua behin betiko onartutzat emoteko beharrezko gehiengoa, gehiengo soila da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015ko apirilaren 27an

Karmele Muñoa Arrigain
Jarduneko Idazkaria